

Jo aintzina!

JEAN LOUIS DAVANT



**P**PASTORALAZ aburu desberdinak ager-tzen dira orain zuberota-rreren artean ere. Hobe se-gur, bizi berri baten keinua baitugu hor. Pastoralak zer izan behar duen: ederra, eta oroz ginetik ikusteko ederra. Ni arropa ederren aldekoa naiz. Maite ditu ikusleak. Herrek ditu ordaintzen eta pagatzen. Beraz herri tipi batek baliat ditzake handi baten bezain errexki, pastoralaren ikustera baitoa jendea, herriaren tipi ala handiagoari kasu egin gabe.

Halaber ez dut ikusten zergatik jokolari guti behar lukeen pastoralak. Bata gutirekin eman ditake, bestea haintzekin, gaiak edo jende kopuruak manatzen duen bezala. Be-rezia da pastoral bakoitza.

Azken hamabost urte hauetan, ospe han-dia irabazi du trajeriak, idazle ta emaile des-berdinei esker. Ezin dugu orain gibel egin, lehengo bukolismo galduaren bila. Jo beraz aintzina! Aurrera!

Errege soinua

NEREA AZURMENDI



**ERREGE**-Erreginak beren erresumen azken muturretara eramaten di-tuzten bira artistiko-poli-tikoak beti iruditu zaizkit, Aita Santuarenak bezala, komunikazio falta arrunta ezkutatzera iristen ez diren ikuskizun zaharkituak. Sofiak berak igarri dio teknokratek marraztu duten Europa honi monarkienganako epel-tasuna. Eta ez da gutxiagorako. Errege-Erreginak izarraren atzetik abiatu ziren ma-goen moduan hartuak diren lurraldeetan ulergarria izan daiteke banderatoak eskue-tan dituztela egun pasa kaleratzen diren etxeokande eta erretiratuen festa. Baina, dakidala, Madrildik Euskal Herrirako bidea egiten dutenean, Errege Magoen zakua ez dira beti opariz beteta etortzen. Honela, zer berri ekar dezakete herri honetara, borondate onez eta gogo hobez badatoz ere, telebista eta koloretako aldizkariak direla medio nahiko hurbil dauzkagun Erregeok? Niri, kasu honetan, burutazio politiko sakonak gehiegizkoak iruditzen zaizkit. Errege soi-nurik gabe ere egunerokotasunak maiz es-kaintzen ditu halako kontsideraziotan zaizkit aitzakiak. Honexegatik iruditzen zaizkit gehiegizkoak zalaparta eta iskanbilak. Gehiegizkoak Donostian agintzen duen go-bernu-taldeak proposatu dituen laudorioak. Gehiegizkoak bidai honen inguruan sortuko diren buruhaustek. Itzaltzear dagoen iza-rrari gas berria ematen bazaio, agian merezi ez duen mesede a egiten zaio. Denborak egingo du bere lana alor honetan ere. Geuk denboran atzera egiten ez badugu, behin-in-phin.

HEMEROTEKA

●EL MUNDO


Erregea eta huskeria

Gure herrian zorionez, ama askoren seme-alabak bizi dira. Batzuk Almeriakoak bezain es-painolak sentitzen dira; beste batzuk ez dira espainolak senti-tzen, baina arrazoi praktikoengatik, hain zuzen ere, eroso bizi dira Espainia instituzionalean, eta azkenik, beste batzuk hiri-tartasun espainolarekin, hatz egiteko gogoa ematen dien eta egunero hazkaka jartzen dituen bigarren azala edukiko balute bezala sentitzen dira.

Lehengoztat Erregea beraien Erregea da; bigarren-tzat, bidaiatzen doazen itsason-tziaren oreka bermatzen duen aingura; azkenengoztat (egu-nen batean lehenak izan daitez-ke) frankismoaren jarraipenaren sinboloa, zainetik kendu nahiko luketen bigarren larru horren tutaia enblematikoa.

(...)

Ikusten da ere Espainia baka-rra dela diotenak lasai dabilzala; Estatutukoak bere tokian lehen baino hobeto finkatuta daudela (barka nazatela EA eta



RICARDO Y NACHO / EL MUNDO / 91-VII-27

Eek); negoziazioak hase-rrero. Baina funtsean 1981ko pertsonaia berak dira. Ez dut ulertzen, bada, zergatik dagoen horrenbeste kezka filma orduan bezala amaitzeko.

MARIANO FERRER / 1991-VII-27

●Navarra hoy

Aurrerakuntza eta ezkerria

PSOEek gaur egun jarreraz al-datzeko posibilitate edo aukera gutxi dituela kontutan hartuta, ebitaezina da susmatzea, azken

orduko jokaera horrek operazio taktiko hutsari erantzuten diola, Diputazioa bereganatu eta gero «Agur Ben Hur» egiteko, eta ho-rrrek edozein alderdi politiko behartzen du pentsatzera beharrezkoa dela PSOEekin zuzenean eta publikoki negoziatzea; hori ez da egingo gaizki ulertu-tako protagonismoengatik, her-ritarrak eta batez ere boto-ema-leak beharrezkoa dutelako jaki-tea, zein eduki programatiko eta zein konpromezu eta berme poli-tikoren arabera jarri dezaketen konfidantza, Urralbururen PSOE bezalako alderdi batean,

azken urteotan abertzaleei huts egin diena eta Nafarroako ezke-rra traizionatu duena.

IÑAKI ALDEKOA / 1991-VII-27

●EL PAIS

Salas

Orain, Salasi gaixotasunal-dian bere gatazka luzean aurrera jarraitzeko indarrak gutxi egin zaizkio, eta Estatuko mangan-teak eskuak igurtzi dituzte. Herri honetan milaka milioi lapurtu daitezke, edo atzo Salasek zioen bezala artikulu zoragarri batean, gaztetxoak galbidera ditzakezu, zure izena paperetan agertu ga-be. Baina GAL kasuko akusa-tzailela bazara, iluntasun una bat eta trafikok gatazka bategatik ate-ra zaitezke egunkarietako lehen orrialdeetan eta zigorra jaso de-zakezu. Saiek indarrez mugitzen dituzte hegoak zalaparta handia sortu nahian. Agian beharrezkoa izango da errepikatzea, zarata-ren gainetik, hiru nabaritasun: Salas ez da eta ez da izan inoiz gaur aurkeztu nahi diguten kari-katura. GAL kasuari kiratsa da-rio. Manganteak mangante dira orain ere.

ROSA MONTERO / 1991-VII-27

ZUZENDARIARI

Gauza txikien bidez ere bultza eta heda dezakegu geure mintzaira

Ibilaldi eta oporretako sasoiak gaudelarik, postalak edonondik dabilza, hiriz hiri eta herriskaz herriska, eta haiei esker dexente irabazi bide dute kiosko eta liburudenda saltzaileek. Komunikabi-de ederra dugu hau benetan eta edonori gustatzen zaio eta edonor baliatzen da hartaz. Baina orain-goan ez noa postale turis-tikoei buruz hitz egitea; besterik dut gogoan.

Nork ez du ikusi paisaia xarmagarri baten gainean edo irudi baten on-doan esaldi edo pentsa-mendu sarkor bat dara-man postalaren bat? Testu aukeratu, polit, egoki, pozgarriak... ditugu: adiskidetasuna dakarte gogora, gizakorragoak izaten irakasten digute,

biziera hobegora deitzen gaituzte... Idazle, poeta eta pentsalari famatu bat-zuren obretatik hartuak dira —aipa ditzagun, ad-i-bidez, R. Tagore eta P. Claudel—, edo sailduren baten asmoak, edo Bi-bliako libururen bateko zatiak. Oso maite ditut postaleok eta sarritan erosi ohi, norbaiti bidal-tzeko edo liburu baten bar-ruan sartzeko, orrialde gidari gisa.

Baina, halarik ere, zera da hau idatz erazi didana: ez dudala inoiz ere topatu euskaratu den postale testurik. Beti erdara hu-tsean. Edozein liburu-denda erlijiosotan, sain-dutegitan edo monastegi-tan. Gaztelaniaz Hegoal-dean eta, noski, frantsesez Iparraldean —Belokeko abatetxeaz oroitzen naiz, elebiduna liburutan, baina elebakarra hiztun posta-letan—.

Ez dakit nik norengana jo neure ohartxo honekin, baina oso poztuko nin-zateke testuok zelanbait

eta ahal den neurrian eus-karatzeko gaitasuna dau-kan pertsona adikorren batek irakurriko eta onar-tuko balit gutuntxo hau. Ederki ere ederki agertu-ko liriteke postaleok esal-di meditarria gure hiz-kuntzaz baleramate. Gai-nera, horrela, gauza txiki-tan bada ere, pixka bat erabilkorrago bilakatuko litzaiguke maiteen dugun mintzaira.

LUIS ALBERTO ANTON GORBEA ETA JUAN DE AJURIAGUERRA BILBO

Oharra:

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gu-tun hauetan. Idatzi duena-ren izena, telefonoa, helbi-dea eta NANren zenbakia agertu beharko dira. La-burtu beharra izanez gero, zuzendaritzak bere esku izango du horretarako es-kubidea.

PERTSONAIA



Miguel Indurain

Indarrez aberatsa talentutik gizen lehenez gainera gaurtik txanpon eta izen. Ez zekiat oraindik ohartuko haizen aurtengoz heu haizela errege Parisen.

JOXE MARI ARRIETA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE  
Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI  
Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE  
Gerentea: INMA GOMILA

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA  
Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI LUZIEN ETXEZAHARRETA IÑAKI URÍA  
Publizitatea: KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E  
Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK  
Egoitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57  
Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93  
Araba: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73  
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77  
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.eskuma. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60  
Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11